



❖ BERTSOLATA - Gabonetako bertso astea

Hernaniri errebaso ederra eman zioten bertso bazkarian

Ostegunean, Urte Zaharreko errondan ibiliko dira bertsoan, Ohitura Zaharrak elkarteak antolatuta; eta urtarrilean, bertso jaialdia eta 'Bertsoa Hernanin' izango dira.

GABONEN bueltan egin ohi den Bertsolata ekimena ari da pixkanaka aurrera egiten. Herenegun izan zen urteroko moduan, Errioguardan egiten den bertso bazkaria eta aurtengoan ere, giro ederraz eta saio politaz gozatze-ko aukera izan da. Bertso bazkariko gai nagusia izanda *Hernani: 15.000 urte bertsoan*, urte guzti hauetan Hernanin bizitako gertakariak ekarri ziren gogora: batzuk fikzioak, besteak errealak.

Joxe Urdangarin aritu zen gai jartzen *Toloxaren* eta *Azpin* laguntzarekin. Urdangarinek gaia bota, *Toloxak* eta *Azpik* gaia girotu, eta Beñat Gaztelumendi eta Xabier Legarreta aritu ziren bertsoan.

Bertso jaialdian txapelketako lau finalistak Bertsolari bide erdia gertzen zaio oraindik eta ekintzak ez dira faltako. Ostegunean,



Hernanin bizitako gertakariak ekarri ziren gogora bertso bazkarian.

esaterako, Urte Zaharreko errondan ibiliko dira hainbat bertsolari Ohitura Zaharrak elkarteak antolatuta. 18:00etan plazatik aterako dira.

Eta urtarrilaren 2an, Bertso jaialdia izango da Oialu-

men, 22:30etan. Kantuan ariko dira txapelketa nagusiko lau lehenengoak, eta bertso eskolako beste bi: Maialen Lujanbio, Amets Arzallus, Jon Maia, Andoni Egaña, Iñaki Zelaia eta Agin

Rezola izango dira.

Bertso asteari bukaera emateko, urtarrilaren 4an, 'Bertsoa Hernanin' proiektuaren aurkezpena eta bideo emanaldia izango dira, 19:00etan Biterin. ||

❖ PORTU AUZOA - Gabonetako egitaraua

Rumba musika, txotxongiloak, jokuak eta merendola aste honetan

Asteartetik astelehenera bitarte izango dira ekintzak Portuko auzo elkarteetan.

GABONETARAKO Portu auzo elkarteak ekintza ugari antolatu ditu. Bihartik hasita, aukera izango da gozatze-ko rumba musika, txotxongilo, joku eta merendolarekin.

'El Furu' emanaldi musikala eta azoka bihar Bihar, arratsaldeko 20:00etan, *El Furu* emanaldi musika izango da, rumba estilokoa. Aurretik arropa azoka

ere izango da.

Txotxongiloak etzi, eta haurrentzako ekintzak astelehenean

Rosa Martinezen eskutik, txo-

txongiloak izango dira etzi, arratsaldeko 18:00etan. Eta astelehenean, joko tailerra eta merendola, 17:30etatik aurrera. Ekintza guztiak elkarte-ko lokalean izango dira. ||

❖ ERREGEAK 2010

Jantziak hartzeko bilera bihar

Erregeen kabalagan pajez jantzita parte hartu behar du ten umeei dei egin zaie bihar Biterin egingo den bilerara azaltzeko, 17:30etan. Jantziak hartzeko izango da bilera. ||

❖ PARROKIA

Abeslari eta txistulariek entsaioa bihar

Parrokiko abeslari eta txistulariek entsaioa izango dute bihar, 20:00etan betiko lekuan. Entsaioa da Donostiako Buen Pastor katedralean abesteko. ||

❖ KAROBI ELKARTEA

Ume festa bihar

Karobi elkarteak, urtero bezala, umeen eguna antolatu du. Bihar izango da, 17:30etan, Karobi elkartearen. Artetik taldea egongo da umeekin eskulanak egiten eta gero txokolatada izango da denentzat. Herriko ume guztiak gonbidatuta daude. ||

❖ DOKUMENTALA

'Nafarroaren konkista' ikusgai

Nabarralde antolatuta, 1512, *nafarroaren konkista* izeneko dokumentala ikusteko aukera izango da bihar, 19:30etan, Biterin. Proiektzioa bukatuta, ordu erdira gutxi gorabehera, gaiaren inguruan hitz egiteko aukera izango da. ||

❖ BERTSOLARITZA

Bertso afaria Mendizabal sagardotegian

Bertso afaria izango da urtarrilaren 9an, larunbata, Mendizabal sagardotegian, Martindegi-ko auzo elkarteak antolatuta. Bertsolariak izango dira Jexux Mari Irazu eta Iker Zubeldia. Txartelak salgai daude Oialume tabernan, 30 euroan. ||

ESDA
Gozotegia 1959

zorionak 50 urte!

IZPIZUA 7

943 551483

TELEFONOAK ● **Taxiak:** 943 550093 ● **Udaltzaingoa:** 943 248900 ● **DYA:** 943 464622 ● **Autobusak:** Herri barrukoa: 943 550548 - 625 700769, Garayar: 943 556658, Areizaga: 943 452708, Korreoa Goizueta-Hernani: 948 514037
● **Anbulatorioa:** 943 006666 ● **Jokalarri anonimoak:** 943 331103 ● **Alkoholiko anonimoak:** 943 331103
● **FARMAZIAK** ● **Egunez:** Gomez Kale Nagusia 14 - 943 554892 ● **Gauetz:** Castilla Urbieta 7 - 943 552941

EGURALDIA ● **GAUR** Hego haizea ibiliko da, zakar, eta temperatura nabarmen igoko da, 16-18 °C-ra. Zerua lainotuta egongo da eta noizean behin euria egingo du.

BIHAR Hego haizearen eraginpean jarraituko dugu. Temperaturak beste koska bat egingo du gora eta euri gutxi, baina noizean behin zeozer bustiko du. (euskaime)

Hernaniko Aiako Harriko parkean otsoa sartzea proposatu dute Europa mailako adituek

Aiako Harriko eta Hernaniko biodibertsitatearen kontserbaziorako «ezinbesteko pausua» dela adierazi dute. Diputazioa aztertzen ari da.

AZKEN urteetan, Europa mailako aditu talde bat Hernaniko lurretan ibili da bertako ikertzaileekin batera lanean, bukatu berri den *Aiako Harria Life* proiektua dela eta. Hori horrela, adituek irakurri dute Aranzadik Hernaniko Udalarentzako egin zuen *Hernaniko natura-ondarearen azterketa*, eta ondorioztatu dute, otsoa (*Canis lupus*) Hernaniko lurretan sartzea Aiako Harriko eta Hernaniko «biodibertsitatearen kontserbaziorako ezinbesteko pausua» dela. Diputazioak azaldu du proposamena aztertzen ari dela.



Otsoa (*Canis lupus*) Europa mailan babestua dagoen espeziea da.

«Sare-trofikoa orekatu beharra»

Adituek azaldu dutenez, «hemengo sare-trofikoa desorekatua dago eta otsoa beharrezkoa da Hernaniko biodibertsitatearen etorkizunerako». Sare-trofikoa litzateke espezie bakoitzak beste jatean sortzen den sarea edo katea, eta gaur egun, hemen, goren mailan basurdea eta orkatza (corzo) daude; jaten dituen espezieirik ez dago. Europako adituen arabera, «behar baino gehiago ari dira ugaritzen eta espezie hauek jaten dituen animalia bakarra otsoa da». Oreka lortzeko ezin-

bestekotzat jo dute, beraz.

Lehen ere baziren otsoak

Adituek gaineratu dutenez, otsoa Hernaniko inguruetan sartzea, otsoa berreskuratzea litzateke, lehen ere otsoen bizileku izan baita. Orain dela 150 urte inguru desagertu zen otsoa inguru hauetan, baina haren arrastoak toponimietan aurkitu ditzakegu: Otsozulo (Epele bailaran), Otsarramendierreka, Otsuenea...). Artxi-boetan ere aipamen asko dira otsoaren ingurukoak.

Burgosetik ekarriak

Otsoa Europa mailan babestua dagoen espeziea da eta saiakerak egiten ari dira espeziea indartzeko. Burgosen,

esaterako, azken aldian asko ugaritu dira eta bertatik ekartzeko asmoa azaldu dute. Hasiera batean ez lituzkete asko sartuko, aurrez ikusi nahi dute nola adaptatzen den ingurura; «izan ere, otsoak bizitzeko azalera handia behar du, gau batean 80km egin ditzake, eta inguru hauek oso urbanizatuta daude».

Natura-ondarearen azterketari helduz, otsoa ez da proposatu duten espezie bakarra. Adituen arabera, Hernani-Arano ingurua egokia da Hartz arrea (*Ursus arctos*) espeziearentzat. Nafarroan izan duen egokitzapen ona ikusita, bikote bat sartzea aztertzen ari dira. ||

Jasota Bezala

• Gutuna argitaratzeko ezinbestekoak dira: izen-abizenak, NAN edo EHNA zenbakia eta telefonoa • Gehienez 1.800 karaktere onartuko dira • Kronikak ez ditu bere gain hartzen sail honetan esaten direnak.

'Joerak'

Sandiusterrin egindako 20garren hitzaldiarekin amaitu da atez atekoari buruzko ziklo informatiboa aurtengoz. Postitiboa izan da bildu diren gehientzat zeintzuk beharrezkoa ikusten duten sistema hau osasunaren, ekonomiaren eta ingurumenaren onerako. Negatiboa izan da parte hartzea; %7 gutxi gorabehera. Gutxi emanda, ez al da gehiegi eskatzea erreferendum binkulante bat egitea eta honek arriskuan jartzea zaborra %75 murrizten duen sistema ezartzea?

Esan dutenaren arabera, sistema martxan jarri eta urtebetera egingo dute galdeketa; herritarrek kontziente izanda bozkatuko

dute, emaitzak esku artean dituztela. Andoni Amonarrazentzat ez da demokratikoki nahikoa; eta bera izan zen uko egin zion galdeketa bat egiteari ez ezik, eztabaida prozesu bat martxan jartzeari. Hori 3.000 sinadura mahai gainean zituela galdeketa eskatuz, Ereñotzutik gertu egin nahi zen errausgailua zela eta.

Emaizta herritarren gain dago. Hiri mordotan funtzionatzen du: European, Kandan, AEBetan, Australian, Zeelanda Berrian, Japonian, Korean, Tahilandian... Ez du funtzionatzen poilitizatu eta boikota egiten zaionean; Vilassar de Mar adibidea izan daiteke. Zergatik hainbesteko fijazioa herri honekin, sistema arrakastatsua izanda

Usurbilen bezala, Katalunian 80 herritan, Balearretan eta Galizian?

Etorkizuna izango duen politika da, bultzatzea baliabideak berrerabiltea, kontsumo murriztea eta ondorioz, hondakina; bestela gaur zaborrak inbadituko gaitu eta bihar desertuak. Zaborra tratatuko duten azpiegiturak diseinatuta (errefusaren zaborte-gia, konpost planta, metanizazioarena etabar), txikiagoak, deszentralizatuak eta sortu eta kontsumitzen diren lekutik ahalik eta gertuen; bertakoentzako lanpostuak sortzen ditu, kutsadura murrizten du eta beharrezkoa ez den garraiorako kostua saihesten du.

Julen Lizaso Aldalur
*(Erredakzioan euskeratua)

◆ PALA - Gipuzkoako Txapelketako Finala



Irati Ugalde eta Miren Aierbe jubenil mailako txapeldunak

Gipuzkoako pala Txapelketan, jubenil mailako finala atzo jokatu zen eta Irati Ugaldek eta Miren Aierbek irabazi zuten Amaia Irazustabarrena eta Eli Gutierrezen aurka. Partidu gogorra izan zen eta huts gutxien egitea lortu zuen bikoteak irabazi zuen. Irazustabarrena asko saiatu zen tantoa bukatzen, baina zuen lortu. Bi atzelariak bikain aritu ziren.

Gipuzkoako Txapelketan, jubenil mailan, 10 bikoteetatik aurreneko lau postuak hernaniarrek lortu dituzte. Lehenengo mailan, berriz, Leire Lukas eta Goitz Mancisidor laugarren geratu dira. ||



Zorionak Marijose!

Gaur Inuxente eguna da, eta bere urtebetetzea! Zoriondu!

Alaban partez, muxu handi bat.

Atez ateko zalantzak argitzen

Zertarako erabiliko da konposta?

Ongarri naturala denez, lorategiak, baratzeak zein basoak ongarrizko erabiliko da.

Bidali zure galdera helbide honetara: info@hernaniatezate.net
Galde-erantzun guztiak webgunean: www.hernaniatezate.net



◆ IRAGARKI MERKEAK ◆

Erreferentzi onak ditudan neska naiz, eta adineko pertsonak zainduko nituzke, gauez, eta goizez garbiketa lanak egingo nituzke, 2 orduz. Deitu: 626 802 083

Alokatzan den pixu baten bila nabil, Hernanin, 2 edo 3 gelakoa. Deitu: 664 124 259

Portatila salgai, egoera onean egoteagatik itzuli ezin dena. Toshiba Tecra A9, Intel Core 2 Duo Mobile T7250, 2.0 Ghz, DVD grabagailua, Windows Vista. **Prezioa: 430€.** Deitu: 678 595 638

ETXEKO KONPONKETAK egiten dira; iturgintza, elektrizitatea, pintura, berogailuak, antenak ere bai... **Seriotasuna. Deitu: 616 886 660.**

Yolanda estetika zentrua. Fotodepilazio berria, prezio egokituak eta pertsonalizatuak. Gaztetzeko tratamendua "Fotorejuvenecimiento", Dieta pertsonalizatuak, zure pisua kontrolatzen dugu. Plataforma bibratzaila. **Atzieta 2, behea. Tel. 943 55 32 78.**

Argia zentroa. Balneoterapia-spa, masajea, akupuntura, diafrototerapia, kiropraxia, errelejo ajustea eta bertebrala, kromoterapia, drenaje linfatikoa... **Antziola 39 (Mendi mendian, 2). 943 55 76 76**

Itziago Royo Masajista. Masajea, naturopatia, akupuntura, ajustea neurologiko eta bertebrala, reflexologia, auriculoterapia,... **943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)**